

Alta eman diote Ertzaintzak zauritutako Realeko zaleari

IRUTXULOKO HITZA :: 15/03/2024

PSGren aurkako partidaren aurretik izandako karga polizialean zauritu zuten pilotakada batez emakumea.

Joan den asteartean, PSGren aurkako partida hasi baino minutu batzuk lehenago, Ertzaintzak egindako kargan jaurtigai baten buruan izandako kolpearen ondorioz zauritu zen Realeko zaleari alta eman diote eta bere etxean dago familiarekin.

44 urteko emakumeak bilakaera ona izan duela eta, gaur bertan eman diote alta. Edonola ere, oraindik hainbat proba neurologiko egin beharko ditu hodi aurikularrean duen hematomagatik. Joan den ostiralean Donostia Ospitaleko zainketa intentsiboetako unitatetik atera zuten, elektroentzefalograma bat egin eta emaitza onak lortu ondoren.

Hainbat hedabidek zabaldu zuten, Ertzaintzak ikerketa bat abiaraziko zuela iragarri zuen, eta gertakariak "berreraikitzen" ari dela baieztatu du. Bestalde, familiaren abokatuak salaketa jarri du ertzain etxean.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/alta-eman-diote-ertzaintzak-zauritutako